



### Alkatetza ebazpena

Ikusirik, 2026ko uztailaren 10, 11 eta 12an ospatuko diren Karrikako jaien antolaketa batzordeak 2026-05-28 datarekin aurkeztutako jai egitaraua eta aurrekontua.

Ikusirik, Hezkuntza eta Kultura Teknikariaren txostena.

Ikusirik, udal Kontuhartzaileak egindako kontrako txostena.

Ikusirik, udal Idazkariak egindako kontrako txostena.

Horrenbestez, agiri honen bitartez, ondokoa

### ERABAKI DUT:

1. Onartzea, Andoaingo Udala eta Karrikako Jai Batzorde Elkarte-Karrikajai elkartearen artean proposatutako lankidetz hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

**Xedea:** 2026ko karrikako jaiak.

**Dirulaguntza:** 5.115€.

**Partida:** 1.0500.481.338.00.06.2026

**Indarraldia:** 2026-01-01tik – 2026-12-31ra.

2. Hezkuntza eta Kultura lansaileko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3. Karrikako Jai Batzorde Elkarte-Karrikajai elkarteari bidaltzea hitzarmenaren bi ale, Hezkuntza eta kulturako zinegotzi ahaldunak sinatuta.

4. 2026ko uztailaren 10, 11 eta 12an ospatuko diren Karrikako Jai Batzorde Elkarte-Karrikajai elkarteak aurkeztutako jai egitaraua eta aurrekontua onartzea.

5. Onartutako dirukopuru honen %60, hau da, 3.069€ Karrikako Jai Batzorde Elkarte-Karrikajai elkarteari ordaintzea onartzea. Jai Batzordeari utzitako udal materialaren bat egoera txarrean edo apurtuta bueltatuko balute, dirulaguntzaren bigarren zatiarengatik jaso beharko luketen dirukopurutik deskontatuko litzateke konponketa horren gastua. Iritsiko ez balitz, diferentziaren ordainketa egin beharko lukete.



## Andoaino Udala

---

**6.** Dirulaguntzaren bigarren zatia ordaindu ahal izateko, jaietako memoria, likidazioa eta bere faktura egiaztagarriak, jaiak amaitu eta hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko dituzte, eta txosten teknikoan ondoren ordainduko da.

**7.** Kontuan izan behar dituzten sarrera eta gastuen balantzea ondo zerrendatuta eta kontzeptu bakoitzaren zenbatekoarekin aurkeztuko da, eta jai batzordeko ordezkariak sinatuta egon beharko du. Izandako sarrera guztien zerrenda ere aurkeztuko da, eta kontzetu bakoitzaren zenbatekoa.

**8.-** Eskatutako behar, material eta laguntzak, zehaztuko dira.

**9.** Udal txozna erabiltzeko behin-betiko baimena ematea. Baimena jai egunetara lotzen da. Ondoren, berehala desmontatu beharko dutelarik.

**Karrikako Jai Batzorde Elkarte-Karrikajai** elkarteari jakinaraztea Andoaino Udalak txoznaren erabilerarako onartuak dituen irizpideen 5. atalean diona bete beharko dutela, hau da, txoznaren erantzukizun zibilaren poliza aurkeztu beharko dutela Bastero kulturguneko bulegoetan.

**Karrikako Jai Batzorde Elkarte-Karrikajai** elkarteari jakinaraztea Andoaino Udalak onartuak dituen irizpideen 2.3. atalak diona bete beharko dutela, hau da *“eskatzailleak berak jasoko eta garraiatuko du Bachiller pabelioitik behar den lekuraino. Berdin egingo du entregatzeko unean”*. Hau koordinatzek, noiz jaso eta noiz itzuli, Zerbitzuetako lansailako arduradunarekin (Borja Estevez 943 300 830) koordinatu beharko dute.

Jai batzordeari jakinaraztea, txoznan su-italgailu bat eduki beharko dutela.

**10.** Txoznaren instalazioa arautzen duen Udal Ordenantza ondo bete daitezela eskatzea eta, bereziki, 3. artikuluko atalak, eta *zaborrak eta hondakinak uzteko orduan, kale horretan Udalak eguneroko zaborrentzat jarrita dituen edukinontzietan uztea eskatzea.*

Eta, *txoznetako musika gaueko programaren azken ekitaldia bukatzen den momentu berean itzuliko den betegeharena, eta txozna berriz, gaueko ekitaldia bukatu eta 45 ´geroago ixtearena.*

**11.-** *Horrez gain, baldinza hau bete beharko da: Txoznaren pertsonen duintasunaren aurkakoak diren kartelak edo ikurrak, zein indarkeria bultzatzen dituztenak ez jartzea. Baldintza hau bete ezean, emandako baimena kendu egingo da.*

**12.-** *Udalaren eta eragile desberdinen artean landu eta adostu diren indarkeria matxistak eragindako erasoen aurkako neurriak errespetatzea.*

**13.** Ikusirik, **Karrikako** jaietako antolaketa elkarteak puzgarrien jarduera aurkeztu duela jaietako programaren barruan. Hori dela eta, honako hau eskatzen zaio **Karrikako** jaien antolaketa elkarteari:

**14.** Puzgarriak martxan jarri baino lehenago, puzgarriaren enpresak jai batzordeari



## Andoingo Udala

---

puzgarria behar bezala muntatu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko dio (instalazioaren ziurtagiri teknikoa, atrakzioa behar bezala lotzea bermatzeko adinako pisua duten kontrapisu eramangarrietan ainguratuta daudela ziurtatzen dituen). Hori guztia, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren 96.3. artikuluan xedatutakoaren arabera. Karrikako jaien antolaketa elkarteak betetzen dela bermatu beharko du. 50 km/h-ko haizeteak gainditzen badira, puzgarria kendu beharko da.

**15.** Jai Batzordeari jakinaraztea suziriak botako dituen pertsonaren datuak jaiak hasi aurretik kultur lansailan jakinarazi behar dituztela. Eta jai batzordeari jakinaraztea ere debekatua dagoela lehergai edo piroteknikako gai arriskutsuak erabiltzea, ez badituzte Euskal Erkidegoan piroteknia artifiziozko ikuskizunak arautzen dituen, 1998.10.20an EHAOan argitaratutako Eusko Jaurlaritzaren irailaren 22ko 240/1998 Dekretuaren I eranskinak ezarritako baldintzak betetzen.

**16.** Karrikako jaien egitaraua eta behar zehatz guztien kopia Obra eta Zerbitzuak eta Udaltzaina lansailari bideratzea.

**17.** Akordio honen berri ematea jaien antolaketa batzordearen ordezkariari, eta erabaki honen berri izan bezain laister, aipatu ordezkariari eskatzea, kultura, Udaltzaintza eta Obra eta Zerbitzuetako lansailletako arduradunarekin harremanetan jartzea.

**18.** Akordio honen berri ematea udal Obra eta zerbitzuak, Udaltzaingoari eta Kontuhartzailletza lansailari.

Hala agindu eta sinatu dut, Andoainen sinadura datan.

IDAZKARIA

ALKATEA



## Andoaingo Udala

---

EKS | CSV: ESKU13ef01d8-cb67-4fcf-b02e-a84552540024



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=00910>